

**EUSKADIKO BABES ZIBILEKO PLANAREN (LABI) AHOLKU
BATZORDEAREN BILERA / REUNIÓN DEL COMITÉ ASESOR DEL PLAN
DE PROTECCIÓN CIVIL DE EUSKADI (LABI)**

2021-05-31 Vitoria-Gasteiz 31-05-2021

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Sailburua, jaun andreok, arratsalde on.

LABIren Aholku Batzordearen bilera amaitu berri dugu. Bihar argitaratu eta ekainaren 2an, asteazkenean, indarrean jarriko den Dekretuaren edukia adostu dugu.

Azkeneko hilabete honetan, apirilaren amaieratik, pandemiaren bilakaera positiboa izan da:

- Intzidentzia metatuaren Tasa: 546 kasuetatik 208ra jaitsi da.
- 65 urtetik gorakoen Tasa: 375 kasuetatik 67ra jaitsi da.
- Oheen okupazioa: 568tik 162ra jaitsi da.
- ZIUren okupazioa: 195 ohetik 97ra jaitsi da.
- Astebetean hildako pertsonak: 49tik 18ra jaitsi dira.

Era berean, apirilaren amaieratik, txertaketak aurrera egiten jarraitzen du:

- Jarraibide osoa duen biztanleria: % 10etik % 27ra hazi da; hau da, 506.000 pertsonak jaso dute jarraibide osoa.
- Dosi bat duen biztanleria: % 27tik % 50era hazi da; hau da, 936.000 pertsonak hartu dute gutxienez dosi bat.

Bilakaera positiboa da. Dena den, egia da jaitsiera moteldu egin dela azken aste honetan. Adierazleek geldialdi bat egon daitekeela ohartarazten dute. Gure inguruko Erkidegoetan ere antzeko bilakaera antzematen ari da. Egoera horrek ziurgabetasun ikuspegia zabaldu du datozen asteetako joerari dagokionez.

Alarma-egoera eta birusaren transmisioaren aurrean hesi eraginkorra osatzen zuten neurriak bukatu ondoren, kutsadurak igotzeko arriskua indartu egin da. Arrisku hori handitzen da mugikortasunaren edo harreman sozialen hazkundearekin, baita ikasturtearen amaierarekin ere.

Testuinguru horretan, itzaropena eta zuhurtzia uztartu behar ditugu. Une honetan, itzaropenaren aliatu onena zuhurtzia da. Zuhurtziaz jokatzeko beharrezkoa da.

Irizpide hori oinarri hartuta, eta Batzorde zientifiko-teknikoak gomendatuta, hiru akordio adostu ditugu:

- Bat: indarrean dagoen Dekretuan jasotako neurri nagusiei eustea.
- Bi: unean-unean aire zabaleko kirol-jarduerak malgutzea eta jarduerak eteteko ordutegia modulatzeko.
- Hiru: beste neurri batzuk beranduago arintzea, osasun zerbitzuen okupazio neurria eta ZIUen ohe erabilpena bigarren agertokira jaitsi arte edo Intzidentzia Tasa 150 kasuen azpitik kokatu arte.

Acabamos de finalizar la reunión del Consejo Asesor de LABI. Hemos acordado el contenido del Decreto que se publicará mañana y entrará en vigor el miércoles 2 de junio.

Desde finales de abril, la evolución de la pandemia ha sido positiva:

- Tasa de Incidencia Acumulada: baja de 546 a 208.
- Tasa en mayores de 65 años: baja de 375 a 67.
- Ocupación de camas en planta: baja de 568 a 162.
- Ocupación de UCI: baja de 195 camas a 97.
- Personas fallecidas en una semana: bajan de 49 a 18.

A su vez, desde finales de abril, la vacunación sigue avanzando en positivo:

- Población con pauta completa: del 10% al 27%, esto es, 506.000 personas vacunadas.
- Población con una dosis: del 27% al 50%, esto es, 936.000 personas.

La evolución es positiva. Ahora bien, también es cierto que el descenso se ha detenido durante la última semana. Esta circunstancia abre una perspectiva de cierta incertidumbre. En este contexto, el mensaje es de prudencia.

Sobre la base de este criterio y por recomendación de la Comisión científico-técnica hemos acordado:

- Primero: mantener el bloque central de las medidas incluidas en el Decreto en vigor;
- Segundo: modular puntualmente cierta flexibilización en actividades al aire libre y ampliar el horario de cese de actividades; y

-Tercero: posponer la atenuación de otras medidas hasta que la presión asistencial y la ocupación de camas UCI se sitúe en el escenario 2 en todas las OSI o la Tasa de Incidencia se sitúe por debajo 150 casos.

El seguimiento y evaluación de estos criterios será continuo y procederemos a su revisión en el plazo de 20 días, sin perjuicio de que resulte necesaria cualquier readecuación previa.

Dekretu honek bost aldaketa izango ditu:

- Bat: aire zabaleko kirol-jarduera pertsona-kopurua mugatu gabe egin ahal izango da;
- Bi: establezimenduak ixteko eta jarduerak eteteko ordutegia gaueko 12:00-ak arte luzatzen dira;
- Hiru: garraio publikoaren irteeraren ordutegia gaueko 12:00-k arte luzatu daiteke;
- Lau: aisialdiko taldeak gehienez 10 lagunekoak izango dira, betiere egonkorrak direla bermatzen bada; eta
- Bost: aire libreko erakusketa eta gune turistikoetako bisitetan taldeak 10 lagun artekoak izan litezke.

Las modificaciones que incluirá este Decreto son cinco:

- Una: la práctica deportiva al aire libre se podrá desarrollar sin limitación de número de personas. Esta medida se corresponde con las previsiones del Plan Bizi Berri III.
- Dos: el horario de cierre de establecimientos y cese de actividades se amplía hasta las 24:00 horas de la noche. Se tiene en cuenta para este ajuste la ausencia del llamado “toque de queda”, el alargamiento de luz diurna y la mejora del clima.
- Tres: el horario máximo de salida del transporte público podrá fijarse hasta las 24:00 horas. Esta medida se adopta en coherencia con la modificación del horario de cese de actividades.
- Cuatro: la organización de los grupos de tiempo libre podrá ser de hasta 10 personas, siempre que se garantice que son estables. Esta medida se ha aprobado y comunicado en este momento para facilitar la organización y planificación de estas actividades de cara a los meses de julio y agosto.
- Cinco: el número máximo en las visitas de espacios expositivos o turísticos que se realicen al aire libre podrá ser de hasta 10 personas.

El Consejo Asesor del LABI ha considerado también prudente posponer 9 medidas condicionadas a el análisis de la evolución:

- Ampliar horarios de cese de actividades y cierre de establecimientos a la 01:00 de la noche.
- Ampliar aforos en comercio, recintos feriales, mercadillos, eventos culturales en exteriores y centros de culto.
- Ampliar los aforos máximos en eventos a 600 en interior y 800 en exterior.
- Ampliar a seis el número personas por mesa en la hostelería.
- Abrir txokos y sociedades gastronómicas con limitación de horario, aforo y distancia.
- Posibilitar la actividad deportiva en recintos interiores en grupos de hasta 10 personas.
- Permitir público en eventos deportivos. Siempre con un aforo del 60%; y un máximo de 800 personas en interior o de 1.200 en exterior.
- Permitir una ampliación de los grupos de personas en la organización de actividades en el exterior de visitas guiadas, turismo de naturaleza, centros recreativos turísticos, etc.
- Ampliar el aforo al 60% en exteriores de piscinas, jardines, terrazas de hoteles y campings.

Este conjunto de medidas que se posponen se corresponden con las previsiones generales contempladas en el Escenario Nivel 2 del Plan Bizi Berri III.

Itxaropenaren eta zuhurtasunaren garaia da. Tunelaren amaieran argia ikusten ari gara, baina zuhurtzia mantendu behar dugu datozen hiru asteetan. Askok aurreratu dugu. Orain helburua da atzera ez egitea.

Helburua ospitaleratzeak eta heriotzak saihestea da. Helburua sufrimendua saihestea da.

Beharrezkoa da norberaren babeserako neurri guztiak betetzen jarraitzea. Pazientzia behar dugu hurrengo 20 egunetan emaitzak aztertzen eta hobetzen jarraitzeko. Prebentzioa beharrezkoa da itxaropena indartzeko.

Eskerrik asko eta, ondoren, Osasun sailburuak eta biok zuen galderei erantzungo diegu.